



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

BARNERATZEN DITUZTEN IPUINEN

GARRANTZIA HAUR LITERATURAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: López, Luque, Maitane.

ZUZENDARIA: Etxaniz, Erle, Xabier.

2018/19

AURKIBIDEA

1.	SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	5
2.	MARKO TEORIKOA.....	6
2.1.	HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN DEFINIZIOA	6
2.2.	HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN HISTORIA	8
2.3.	BEHAR BEREZIAK, ZER DIRA?	11
2.3.1.	Dibertsitate funtzionalaren klasifikazioa.....	13
2.4.	DIBERTSITATE FUNTZIONALA HAUR LITERATURAN	13
3.	IKERKETA.....	15
3.1.	HELBURUA ETA HIPOTESIAK.....	15
3.2.	METODOLOGIA	16
3.3.	EMAITZAK.....	17
3.3.1.	Dibertsitate funtzionala lantzen duten ipuinen hautapena eta klasifikazioa.....	17
3.3.2.	Ipuinen fitxa bibliografikoa eta lortutako datuak	17
3.3.	ONDORIOAK.....	27
3.4.	HOBETZEKO PROPOSAMENAK	30
4.	BIBLIOGRAFIA.....	31
5.	ERANSKINAK.....	35
1.	ERANSKINA.....	35
2.	ERANSKINA.....	36
3.	ERANSKINA.....	37
4.	ERANSKINA.....	38
4.1.	Behar bereziak tratatzen dituzten ipuinen taulak.....	38
4.2.	Zoriz hautatutako ipuinen taulak.....	65
5.	ERANSKINA.....	74

Denboran zehar geure gizarteak elbarritasunaren irudia termino negatiboetatik kontsideratu du zerbait arraroa bezala ulertu delako. Izan ere, ikuspuntu hau eboluzionatzen joan da antzinako ideiarekin guztiz apurtu arte. Hori dela eta, gaur egun sozietate malguagoa eta toleranteagoa lortzeko asmoz fokua gizartean jarri da eta ez banakoan. Literatura modernoak, gai hau ikuspuntu optimistagoatik eta eguneratuagatik kontsideratzeaz gain, baloreen transmisioa xedetzat du. Tamalez, dibertsitate funtzionalaren gaia era desegokian jorratzen duten liburuen kopurua handiegia da oraindik. Lan honen bidez dibertsitate funtzionalak zer tratamendua duen Haur eta Gazte Literaturan ezagutzea eta ulertzea da. Ildo honetatik, lana bi zatitan bananduko da: marko teorikoa, non Haur eta Gazte Literaturaren eta dibertsitate funtzionalaren kontzeptualizazioa azalduko den; eta ikerketa, non proposatutako helburua argituko den.

Haur eta Gazte Literatura, dibertsitate funtzionala, elbarritasuna, ipuina, baloreak

Durante mucho tiempo nuestra sociedad ha calificado la imagen de la discapacidad desde términos negativos ya que se ha entendido como algo atípico. Sin embargo, este punto de vista ha ido evolucionando dando lugar en la actualidad a una perspectiva totalmente opuesta a la idea tradicional. Actualmente, el foco se ha puesto en la sociedad y no en el individuo, de modo que la comunidad ha de ser más flexible y tolerante con todos los individuos que la constituyen. La Literatura moderna, que además de enfocar este tema desde un punto de vista más actual y optimista, tiene como objetivo la transmisión de valores así como, la tolerancia y el respeto. Desgraciadamente, aún es más grande el porcentaje de cuentos infantiles donde la diversidad funcional no es tratada debidamente. Mediante este trabajo se quiere estudiar el tratamiento de la diversidad funcional en la Literatura Infantil y Juvenil. De esta manera el presente trabajo se dividirá en dos partes: el marco teórico, donde se explicará la conceptualización de la Literatura Infantil y de la diversidad funcional; y la investigación, donde se tratará de aclarar el objetivo propuesto.

Literatura Infantil y Juvenil, diversidad funcional, discapacidad, cuento, valores

For a long time our society has described the image of disability in negative terms because it has been understood as something atypical. However, this view has been changing giving rise today to a perspective totally opposed to the traditional idea. Today, the focus is on society and not on the individual, so the community needs to be

more flexible and tolerant of all the individuals who constitute it. Modern literature, which in addition to approaching this subject from a more current and optimistic point of view, has as its objective the transmission of values as well as, tolerance and respect. Unfortunately, the percentage of children's stories where functional diversity is not adequately addressed is even higher. Through this document we want to study the treatment of functional diversity in children's and youth literature. In this way this document will be divided into two parts: the theoretical framework, where the conceptualization of children's literature and functional diversity will be explained; and the research, where the proposed objective will be clarified.

Children's literature, functional diversity, disability, story, values

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gaur egungo gizartean ipuina erreminta kultural nagusitzat kontsideratua dago eta umeari inguratzen dion munduaren informazioa eskuratzen dio. Hori dela eta, txikiak modu ludiko baten bidez oraingoko aniztasunez zein errealitateaz ohartuko dira. Gainera, literaturak barneratzen duen barietate eta kalitateari esker irakasleentzako ezinbesteko errekurtso bihurtzen da.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren ikuspuntutik begiratuta, eskola oso garrantzitsua den instituzioa da, dituzten eragozpenak konpentsatzeko, garapen egokia bultzatzeko eta gerora izan dezaketen hainbat premiari aurre egiteko anitz aukera eskaintzen dizkielako. Gauzak horrela, gaur egun, ikasle guztien inklusioa eskolen helburu nagusia izanda, egokiak diren materialak eskura izatea ezinbestekoa da.

Ildo beretik, ipuin hauen erabilpena oso baliagarria izan ahal da bai Hezkuntza Premia Bereziak barneratzen dituzten ikasleentzat baita ez dituztenentzako ere. Azken finean, guztiok istorio hauen bitartez behar bereziak errespetatzen eta onartzen ikasi ahal dugu nahiz eta era zuzen batean ez bizi.

Bestalde, aipatzekoa da dibertsitate funtzionalaren gaia jorratu duen literaturak historian zehar eboluzionatzen joan dela guztiz integratuta dagoen kolektiboaren irudia eskaini arte. Horiek horrela, gaur eguneko literaturan Behar Bereziak dituzten protagonistak edo pertsonaia sekundarioak aurki ditzakegu.

Gradu Amaierako Lan honen helburua Hezkuntza Premia Berezien eta Haur eta Gazte Literaturaren erlazioa aztertzea da. Horretarako, bi liburu korpus aztertu dira: lehenengoan, gai hauek barneratzen dituzten ipuinak aztertuko dira eta bigarrean, ausaz hautatutako liburuetan zenbatetan elbarritasunak tratatzen diren.

Guzti hau aurrera eraman ahal izateko lana bi zati nagusitan banandu da: marko teorikoa eta ikerketa. Marko teorikoan HGL-ren historia, definizioa, Behar Berezien azalpena zein klasifikazioa eta dibertsitate funtzionala Haur Literaturan azalduko dira. Aldiz, ikerketan arestian aipatutako korpusak agertzeaz gain, helburua, metodoa, emaitzak eta ondorioak aipatuko dira.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN DEFINIZIOA

Gaur egun Haur Literatura gero eta gehiago jorratzen ari den gaia da. Hala ere, Xabier Etxanizek (1996) bere lanean zehazten duen bezala, kontzeptu honen definizio egoki bat egitea zaila da; kontzeptu horren azpian ezkututzen den errealitatea zein den argitzeko orduan ez dago batere garbi zertaz ari garen. Dena den, kontutan izan behar dugu haur eta gazte literatura termino hori berria dela (duela mende eta erdi, edo sortua) eta gutxi izan direla arlo horretan eginiko ikerketak.

Belda Martínez (2018:86) bere tesian azaltzen duen moduan, "durante mucho tiempo ha habido dudas sobre este género literario, autores como Carandell (1976) y Rico (1988), pusieron en duda su existencia e incluso su propia definición". Hala ere, Cerrillok (2007:12) argudiatu zuen: "el concepto de la literatura no es único: un repaso histórico a la historia de la misma nos demuestra que es compleja y cambiante". Honi guztiari Etxaniz-ek (1996:18) hau gehitzen dio:

Haurtzaroa da gizakion bizitzan aldaketa handiena gertatzen den garaia, gure esperientzia eta bizipena garai txiki batean biderkatu, hirukoiztu egiten da, munduaz dugun ikuspegia aldatu, gure espektatibak handitu, ezberdindu, aldatu, eta esperientzia, baita literarioa ere, gehitu. Haurra zein gaztea garatze prozesu batean guztiz sarturik dagoen gizakia da, etengabeko aldaketan, eta ezaugarri hauek zaildu egiten dute haur eta gazte literaturaren kontzeptua zehaztea, beraien definizioa zaila den neurrian.

Dena den, aditu asko izan dira arloaren definizioa osatzen ahalegindu direnak: Teresa Colomer (1988), Juan Cervera (1989), Isabel Tejerina (1994), Cerrillo eta Sánchez (2006), Santiago Yubero eta Elisa Larrañaga (2010) (Belda Martínez, 2017). Aipatzekoa da Peter Hunt ikerlari ingelesak aurkezten duen definizioa: "Children's literature, disturbingly enough, can quite reasonably be defined as book ready by, especially suitable for, or especially satisfying for, members of the group currently defined as children (Hunt, 1995:61). Hala ere, urte berean Luis Sánchez Corralek (1995:21) aipatu zuen: "[...] Bien pudiera retrasarse la aparición de la auténtica literatura infantil hasta el siglo XIX, precisamente cuando se produce la transición desde la palabra didáctico moral a la palabra lúdico-estético".

Xabier Etxanizek (1996) bere tesian azaltzen duen moduan, literatur esparru honen inguruan eginiko ikerketak definizio bat lortzen saiatu badira ere, azkenean denek jo izan dute hartzailearen ezaugarrietara; hots, haurrak eta gazteak direla literatura mota hau definitzen dutena, hartzaileak.

W.H. Audenek dioenez (1974), izan daitezke helduentzat bakarrik onak diren liburuak, baina ez haurrentzat soilik onak diren liburuak, eta ideia hau beti izan behar dugu presente haur eta gazte literaturaz hitz egiterakoan. Halaber, literatur genero hau haurrei zuzenduta dagoenez, mesprezaturia izaten da edo helduentzako literatura baino kalitate gutxiagotzat hartzen da (Mulero eta Lasarte, 2015).

Alabaina, jatorrizko ipuinak helduentzako kontakizunak direla eta pairatu dituzten aldaketen ondorioz, Haur Literatura bihurtu izan direla buruan izan behar dugu (Mulero eta Lasarte, 2015). Joxemari Iturraldek aipatzen duen moduan, "Kontua da literatura ona bada, kalitatezkoa, ez duela adinik" (Iturralde in Etxaniz, 1996:4). Horrela, Haur Literatura ez da haurrek soilik irakurtzen, ulertzen eta disfrutatzen duten literatura baizik eta helduok ere, irakur uler eta goza dezakeguna (Mulero eta Lasarte, 2015).

Teresa Colomerrek (2010) hainbat aldagai eta funtzioen artean, kalitatezko Haur eta Gazte Literatura lantzeko azaltzen duen irizpide nagusietariko bat hartzaileen ulermen gaitasuna da, ez bakarrik hizkuntz irizpideen baitan, baita kultur esperientziaren, jakituriaren, edota gure itxaropenaren arabera. Honen ildotik, Silva-Díazek (2005) aipatzen du kontuan hartu behar direla testu literarioek ze esperientzia eta ze ezagutza literaturaren inguruan eskaintzen duten, eta haiengandik irakurleek ze esperientzia eta ze ezagutza bereganatzen dituzten.

Ezin dugu ahaztu, literatura mota honen helburua jolasaren, entretenimenduaren eta motibazioaren bidez haur irakurlearekin elkarrizketa bat ezartzea dela (Del Amo, 2003). Hori dela eta, Belda Martínezek (2018:91) gehitzen du "la literatura busca introducir los mecanismos de producción necesarios para convertir el libro en el vehículo de expresión de las necesidades, sentimientos, intereses y experiencias de los niños y niñas".

Aipatu duguna kontuan hartuz, esan dezakegu Haur Literaturak produkzio artistiko literarioa zein umeak hartzaile bezala izategatik gailentzen dela (Belda

Martínez, 2018). Hori dela eta, irakurleen ezaugarriek berebiziko garrantzia izango dute. Izan ere, haurtzaroa bizi etapa berezia eta aldaketa handiko garaia da. Haurtzaroan izandako esperientziak geroko bizitza osoa baldintza dezakete neurri handi batean, jakina 0-6 urte bitartean garapen garrantzitsua izaten duela haurraren nortasunak, bere ezaguera ahalmenak eta bestelako ahalmen guztiak, hurrengo etapetan garbiago ikusiko direnak (Mulero eta Lasarte, 2015).

2.2. HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN HISTORIA

Hezkuntza Premia Bereziak Haur Literaturan duten irudia ulertzeko, haur literaturaren historiari erreparatzeko beharra suertatzen da. Xabier Etxanizek (1996) dioen moduan, zaila da haur literaturaren idatziaren hasiera kokatzea, ia ezinezkoa da esatea noiz hasi zen zehatz-mehatz, baina argi eta garbi dago une hori, ekintza hori, prozesu baten ondorioa dela, eta fenomeno askoren ondorioa. Honen ildotik, Colomerrek (2010:101) gehitu zuen, "La existencia de una literatura específicamente destinada al público infantil y adolescente es un fenómeno propio del mundo moderno". Era berean, Cerverak (1991:38) Colomerren aipua azaltzen du: "La literatura infantil solo puede surgir a partir del momento en que se empieza a considerar al niño como ser con entidad propia y no solo como futuro hombre".

Gauzak horrela, haur literaturaren fenomenoaren hasiera Indian kokatzen da, IV. mendean *Panchatantra* izeneko liburuarekin (Etxaniz, 1996). XVII. mendean, ilustrazioak jaso dituen lehen haur liburua argitaratu zen *Orbis sensualium pictus* izeneko Johann Amos Comenius-en eskutik. Mende horretan ere, *Mila gau eta gau bat gehiago* liburu ezaguna ekarri zuen Europara Anton Gallandek. Herri ipuinei dagokienez, *Lo cunto de li cunti* Giambattista Basilek idatzitako liburua dugu, bertan, eta lehenengo aldiz, ipuin herrikoiak jasoz (Etxaniz, 1996).

Askoren ustez, 1697an haur literaturari hasiera eman zitzaion Charles Perrault aitzindaria izanik (Pardo Miguens, 2017). *Perraulten ipuinak* liburua urte horretan kaleratu zen, helduentzat pentsatuak hasieran batean, eta gaur egun haurren artean guztiz ezagunak direnak (Etxaniz, 1996). Izan ere, Gomezek (2002:23) adierazten duen moduan, "Perrault, klasiko handia, ez zen originala izan" baizik eta "ahozko kulturetako errezitatzailea idazle bihurturik".

XVII. mendeak izugarrizko garrantzia hartzen du garai horretan lehenbiziko aldiz haurraren hizkuntza maila kontuan hartzen delako; eta Rebelais, Montaigne eta antzeko pentsalariei esker hasi zen helduaroa eta haurtzaroa bereizten (Etxaniz, 1996). Hurrengo mendean, XVIII.ean erabilpen didaktikoa areagotzen da; Zilbermanen (1982:3) aburuz, "su emergencia se debió antes de todo a su asociación con la Pedagogía, ya que las historias eran elaboradas para convertirse en instrumentos de ella". Honekin batera, Robinsonen mendea dugu, Gulliverrek bidaiak egin zituen eta John Newberry-ren eskutik sortzen da "Juvile Library" (1750) (Etxaniz, 1996).

XIX. mende-hasieran kaleratzen da euskal lehen haur liburua: Vicenta Moguelen *Ipuin Onac*, 1804ean argitaratua eta Esoporen 50 alegi dituen. Hurrengo urtean, 1805ean, Andersen jaio zen eta 1812an Grimm anaiei ipuinek ikusi zuten argia (Etxaniz, 1996). Grimm anaiek Alemaniako ahozko tradizioaren edozein ipuinaren idazketa egiten zuten, aldiz, Andersen edozein gaitan oinarritzen zen, hori dela eta, haren ipuinen artean aniztasun handia dago (Pardo Miguens, 2017). Haur literaturaren historian menderik garrantzitsuena dugu hau. Fantasia, irudimena, estetika eta sormena inposatzen dira etika eta pedagogiarenekin (Etxaniz, 1996).

Mende horretan lehen aldiz ematen da bukaera triste bat (Andersenek zenbait ipuinetan, *Beruneko soldadutxo*-n esaterako), lehen aldiz hiltzen dira haurrak, (Dickensen eta H. Maloten liburuetan). Haurrari mundua azaltzen zaio ikus dezan, ikas dezan (Etxaniz, 1996). Honen ildotik, Belda Martínez (2018:105) adierazten du "la literatura infantil debe mostrar a los niños y niñas las situaciones reales y reflejar los cambios sociales que se van produciendo con el paso de los años" hori dela eta, "hay que reconocer la literatura como un medio potencial para desarrollar la comprensión social" (Rossenblat, 2002).

XX. mendeko lehen herenean (1900-1930), aurreko mendean ekindako bidetik jarraitu zuen haur literaturak, gero eta sendoago, gero eta produktu hobea ateratzen zirelarik (Euskal Herrian Kirikiñoren *Abarrak* 1918an edota *Pernando Amezketarra* 1927an). Gainera, gure literaturaren berpizte baten aurrean gaude, abertzaletasuna sendotzen ari da gizartearen eta euskal heziketa izateko lehen pausoak ematen. Giro honetan, kanpoko liburuak ere itzultzen hasten dira, Grimm anaiei ipuinak, esate baterako. Gerra ondoren basamortu zabala ageri da haur literaturaren munduan; Euskal

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

Herrian Francoren diktadurak ezinezko bihurtzen du euskaraz hitz egitea, idaztea, publikatzea (Etxaniz, 1996).

Europar, aldiz, oasi txiki batzuk agertzen dira: Astrid Lindgrenek 1944ean idatzitako *Pippi Kaltzaluze*. Askorentzat hau daiteke haur literatura modernoaren hasiera. Pippi bera da liburuko heroia eta bere paper horretan haurrari seguritatea ematen dio hazkunde-prozesuan eta lagundu egiten dio bere autonomia bilatzen. Eta honela, oasiak ugaritzen diren heinean ailegatzen gara 1960ko hamarkadara, guk euskal haur literaturaren zabaltze eta ugaritze datatzat hartu duguna. Garai honetan, oraindik *didaktismoa* ez da bukatu, hala ere, inposatu beharrean erreflexionatzeko bidea erakusten zaio irakurleari (Etxaniz, 1996).

Gainera, pentsamolde aldaketa dela eta, haurra jada ez da gizon-emakumetxo bat bezala kontsideratzen, nortasun propioa duen pertsona baizik, hortaz, garai honetan haur literaturaren kontzeptua seriooki erabiltzen hasten da (Etxaniz, 1996). Gainera, 1953ean Zurich-en haur literatura bultzatzeko erakundea sortzen da: IBBY (International Board on Books for Young People) (Bravo, 2010).

Pauso honen bidez, haur literatura gero eta pisu handiagoa hartzen joaten da herrialde desberdinetan; Freinet eta Rodariren eragina eta UNESCOk hartutako erabakiak izan ziren indartzen honen adibideak. Honen ildotik, Euskal Herrian isiltasunarekin apurtzen denez, *Amandriaren Altzoan* (1961) Juliana de Azpeitiak idatzia, *Sorgiñaren umea*, *Umeentzako kontuak* (1966) Martin Ugaldereana, edo Nemesio Etxanizek egindako *Lur berri bila* (1967) lanak kaleratzen dira (Etxaniz, 1996).

Hori gutxi balitz, lehen ikastolak eta euskara batua sortzen dira; hori dela eta, izugarritzko aurrerapena sortuko du 70eko hamarkadan eta boom handi bat 80ko hamarkadan. 1970ean hain zuzen ere, Kimu Saila sortzen du Gero argitaletxeak. Gainera, ikastoletan pertsonaia historikoen biografiak argitaratzen dituzte, mitologiako pertsonaiekin batera, literatur liburuak helburu pedagogikoaren menpean idazten dira, etab. (Etxaniz, 1996).

Franco hiltzean abertzaletasun-sentimendua pizten da eta gero eta jende gehiagok euskara ikasten du. Hala ere, Euskal Herriko argitaletxeek ez dute indarririk eta kanpotik etortzen dira haur liburuak; giro honetan, Erein eta Elkar argitaletxeak sortzen

dira. Hortik aurrera, Pamiela sortu zen eta erdal argitaletxeak, hala nola, Alfaguara eta Anaya, S.M., pixkanaka (1986tik aurrera) euskarara bere lanak itzultzen hasiko dira. Gaur egun, kantitate eta kalitate binomioa kontuan hartzen da eta esparru hau serioago hartu da, lan literarioagoak egiten dira garrantzi handiagoa emanez (Etxaniz, 1996).

2.3. BEHAR BEREZIAK, ZER DIRA?

Haur Literaturaren kontzeptua bezala, elbarritasunaren kontzeptua ere historian zehar eboluzionatzen joan da. Modu honetan, Vindel Gamonalek (2013:12) aipatzen du:

Esta evolución ha dado lugar en la actualidad a una perspectiva que -frente a la concepción tradicional de la discapacidad como obstáculo o deficiencia- subraya la diversidad funcional de las personas y pone el acento en las barreras que la sociedad pone tanto desde un punto de vista físico como actitudinal. El problema se traslada entonces del sujeto a la sociedad, entendiéndose que es ésta la que debe volverse más flexible, respondiendo así a la diversidad funcional de todos los individuos que la componen.

Ildo honetatik, elbarritasuna kontzeptu eta errealitate bezala ulertzeko konplexua da (Shakespeare eta Watson, 2001, in Moreno, 2001). Autore hauek nabarmentzen dute: "la discapacidad es variable, contingente, situada, que no puede reducirse a una definición universal, única, singular, en tanto es multiplicidad y pluralidad" (Moreno, 2011:56).

Historikoki, ezgaitasuna termino kaltegarria kontsideratu da, patologikoa eta zerbait atipiko bezala ulertua izan delako. Wehemeyerrek (2009) baieztatzen du elbarritasun bat duten pertsonak gizaki gaixo, apurtuak edota konponketa bat behar dutenak bezala kontsideratzen direla. Aitzitik, azpimarratu beharra dago XX. mendeko amaieran emandako aurrerapen zientifikoek eta gizartearen usteak lagundu zutela birpentsatzera eta bistaratzera elbarritasuna gizakien gaitasunen eta testuinguruak aurkezten dituen posibilitateen funtzio bezala (Brandt eta Pope, 1997, Cuervo eta besteak, 2008; Wehemeyer, 2009).

Gauzak horrela, ikuspuntu hauetatik abiatuta, elbarritasuna jada ez da kontsideratzen banakoaren arazoa, baizik eta banakoaren eta bere testuinguruaren

funtzionamenduen arteko erlazioaren produktua (Wehemeyer, 2009; Brand y Pope, 1997).

Ikusten denez, hainbat izan dira elbarritasunaren inguruko definizioak ematen saiatu diren autoreak. Hala eta guztiz ere, gehien iraun duena ONUk 1980an proposatu zuena izan da: "aktibitate bat gizakiak normaltzat hartzen duen eran gauzatzeko gaitasunen murrizketa edo absentsia (urritasun bat eraginda)" (Belda Martínez, 2018:20). Urte batzuk geroago, 2001ean hain zuzen ere, Osasunaren Mundu Erakundeak definizio horri zenbait hitz gehitu zizkion elbarritasunaren kontzeptua guztiz borobiltzeko asmoz: "mugaketak aktibitatean eta murrizketak parte-hartzean, osasunaren ordenan hutsetik desbideratuta, banako bati bere trebezian eta eguneroko bizitzan bere testuinguru fisiko sozialaren barruan eragiten diotenak" (OMS, 2011:22).

Nahiz eta aldaketa txiki hauek martxan jarri, oraindik elbarritasunaren kontzeptuak konnotazio negatiboak izaten jarraitzen du. Rodríguez eta Ferreira (2010:18) sozialki ezgaitasun terminoak duen esanahiari buruz aritzen dira:

Resaltamos el prefijo dis- apuntando ya preliminarmente con ello al objeto de nuestra discusión. En primera instancia el simple concepto alude a una falta, una carencia, una condición negativa: el concepto cualifica a ciertas personas que se entiende que carecen de algo que la mayoría de las personas, no discapacitadas, si poseen: se les califica, así, como deficitarias, por tanto imperfectas, en consecuencia, sujetas a una desviación respecto de cierta normalidad.

Ildo honetatik, historian zehar kolektibo honek jaso dituen terminoak ez dira positiboak izan, beraz, tendentzia hau aldatzeko beharra sortzen da. Modu honetan, OMS erakundeak 2001ean terminologian hainbat aldaketa egitea proposatu zituen hutsunean oinarrituta ez dagoen kontzeptu berri bat sortzeko asmoz (Belda Martínez, 2018). Aldaketa hauen bidez, aniztasun funtzionalaren terminoa asmatu zen. Termino berri hau gaur eguneko errealitatearekin bat etortzen da, eta bere helburua marjinazio egoerarekin eta bazterketa sozialarekin amaitzea da. Orokorrean, giza pertsonaren duintasunarekiko errespetua eskatzen du.

Dakigunez, pertsona guztiok nahi dugu errespetuz tratatuak, eskubide berdinak izatea, zerbitzu eta errekurtso guztietara sarbidea izatea hezteko eta gizaki bezala

hobetzeko (Belda Martínez, 2018). Hortaz, ezin dugu ahaztu gizaki guztiak duintasunean eta eskubideetan libre eta berdinak jaiotzen direla eta, guztiak elkarren artean berdin jardun behar dutela (ONU, 1948).

2.3.1. Dibertsitate funtzionalaren klasifikazioa

Behar bereziak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak lau multzotan sailkatu daitezke Belda Martínezen arabera (INEGIk 2000ean publikatutako txostenetik hartua):

- 1. taldea Elbarritasun sentsozialak eta komunikazioarenak:** urritasun eta desgaitasun okularrak, entzumenezkoak eta hizkerarenak.
- 2. taldea Elbarritasun motorrak:** ibiltzeko, objektuak manipulatzeko eta mugimenduak koordinatzeko zailtasunak dituzten pertsonak.
- 3. taldea Elbarritasun mentalak:** ikasteko eta eguneroko jardueretan zein besteekin jarrera egokiak izateko zailtasunak dituzten pertsonak.
- 4. taldea Elbarritasun anitzak:** aurreko taldeetan aipatutako konbinazioak eta beste motatakoak ematen direnean.

2.4. DIBERTSITATE FUNTZIONALA HAUR LITERATURAN

Colomerrek (1998) adierazten duen bezala, haur literaturak gizartearen arazoak umeen ikuspuntutik heltzen ditu, hau da, bere pertsonaiek gure testuinguru gertuenean aurkitzen ditugun ereduak erreparatzen diete. Bere gaiak jarrera berriak eragiten dituzte eta errespetu, tolerantzia eta askatasuna baloreak bultzatzen ditu.

Historian zehar, dibertsitatearen gaia haur literaturan eboluzionatzen joan da ikuspuntu negatibo batetik positibo batera igarotzeraino non, ezgaitasuna dutenak protagonistak bihurtu diren (Cuevas, 2005). Ildo honetatik, gaur egungo haur literaturak, orokorrean, irudi positiboa eskaintzen du nahiz eta batzuetan estereotipatua egon eta umeek izan ahal duten ikuspegia kaltetu (Llorens eta Belda, 2017).

Rortyk (1991a) gehitzen duen bezala, "dicha literatura debe reflejar la situación que viven o padecen los otros, los seres humanos a los que permanecemos ajenos, aquellos a los que debemos tratar: como uno de nosotros y no como ellos". Hortaz,

literaturaren errekurtsioa txikienean egoera hauen inguruan hausnartzeko, bestearen lekuan jartzeko eta errespetu zein enpatia jarrerak garatzeko erabili behar dugu (Belda, 2018). Orokorrean, haur literatura errekurtsio ezin hobea da dibertsitate funtzionalaren inguruan aurkitzen diren mota desberdinak ezagutzeko; hori dela eta, Comesek (1992) eta Orjasaeterrek (1987) bere erabilera gomendatu zuten.

Teresa Colomerrek (1998) dioten bezala, haur literaturaren ardatz garrantzitsuenetarikoa berritzeko gaitasuna izan da; hau da, esparru honek tabu edo ezohikoak izan diren gaiak eskuratu ditu eboluzionatzeko helburuarekin. Haur literaturak ez ditu errealitate sozialak alde batera utzi baizik eta, apurka-apurka gai berriei lekua uzten hasi da. Beraz, saiatu behar gara umeak txikitatik errealitate konplexu hauetan barneratzen estereotipoetatik aldentzeko. "Hemos de ser capaces de apreciar un pie de igualdad los diversos matices que conforman el tapiz de una realidad rica y plural en la que la superioridad numérica no puede utilizarse como definición de la misma" (Vindel, 2013:41).

Hala ere, nahiz eta pentsatu gizarte aurreratu eta ireki batean bizi garela, oraindik dibertsitate funtzionala duten pertsona asko baztertuta daude arazo fisiko eta psikikoak direla medio. Gauzak horrela, ezinbestekoa da haur literaturaren errekurtsioa erabiltzea neska eta mutil guztien arteko erlazio positiboak sustatzeko (Gross eta Ortiz, 1994). Gatok eta Carballo (2009:758) iradokitzen duten bezala "la sociedad, nuestra sociedad, llamada a sí misma civilizada, industrializada, de progreso, ha tardado mucho tiempo y aún está aprendiendo, a no avergonzarse del discapacitado". Izan ere, zorionez, haur literaturak beti sinetsi du mundu hobea baten utopian (Carrasco, 2004).

3. IKERKETA

3.1. HELBURUA ETA HIPOTESIAK

Arestian aipatu denez, lan honen helburu nagusia dibertsitate funtzionalak zer tratamendua duen Haur eta Gazte Literaturan ezagutzea eta ulertzea da. Hori dela eta, estudio honen bidez Haur eta Gazte Literaturaren erabilera proposatzen da heziketa baliabide bezala Haur Hezkuntzako zentroetan, ume guztien integrazioa zein inklusioa sustatzeko.

Oinarrizko xedeaz gain, ikerlan honetan beste bi helburu espezifiko planteatu dira: alde batetik, dibertsitate funtzionala tratatzen duten ipuinak bilatzea eta bestetik, katalogatu diren obren aukeraketa egitea, ondoren behar berezien gaiaren inguruan zer nolako tratamendua egiten duten aztertzeke eta baloratzeko.

Adierazitako helburuak eta erlazionatutako marko teorikoaren ezagutza abiapuntutzat hartuz, hurrengo hipotesiak mahaigaineratzen dira:

BEHAR- BEREZIEN LIBURUEN KORPUSAREN HIPOTESIAK

➤ 1. HIPOTESIA:

Gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan dibertsitate funtzionala duten pertsonen gertakariak modu errealistan kontatzen dira eta pertsonaiak indibiduo kompetenteak eta positiboak dira.

➤ 2. HIPOTESIA:

Orokorrean, istorioak testuinguru familiarrean garatzen dira eta senide batek kontatzen ditu.

➤ 3. HIPOTESIA:

Elbarritasun mentala gehiago islatuko da.

ZORIZ EGINDAKO LIBURUEN KORPUSAREN HIPOTESIA

➤ 4. HIPOTESIA:

Orokorrean, haur liburuetan ia-ia ez dira behar bereziak inoiz islatzen.

3.2. METODOLOGIA

Ikerketa hau garatzeko bi liburu korpus egin dira. Lehenengoan, behar berezien gaia tratatzen duten ipuinen bilaketa bat egin da eta horietatik 25 ipuin aukeratu dira bi baldintza bakarrei erreparatuz: alde batetik, zerrendatutako ipuinak elbarritasun batekin harreman egotea eta bestetik, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako umeentzat zuzenduak egotea (**1. eranskina**). Bigarreanean aldiz, 0-6 eta 6-12 urte bitarteko 25 liburu zoriz hautatu dira liburutegian prestatueneren artean egon ahal direnak. Aipatzekoa da azken hauek ez dutela zertan ikertzen ari den gaia jorratu behar (**2. eranskina**).

Jarraitzeko, azpimarratu behar da egile desberdinen ipuinak hautatzea kontuan hartu beharreko ezaugarria dela, idazle bakoitzak erabilitako estrategiak konparatu ahal izateko; aukeratutakoak autore bakarrenak balira ez litzateke bereizgarria izango, bakoitzak behar bereziak bere modu propioan jorratzeko joera izango baitu, zentzu espezifiko bat emanez, adibidez.

Ondoren, taula bat egin da ipuinak ikertzeko (**3. eranskina**). Taula horretan 50 ipuinen pertsonaiak zein gertaerak aztertu dira, dibertsitate funtzionalaren trataera egokia zehaztu da eta gizartean dagoen aniztasuna islatzen den ala ez aztertu da.

Ikerketa honi amaiera emateko, lortutako informazioa zein egindako ipuinen analisiak kontuan hartuz (**4. eranskina**), lanaren emaitzak zein ondorioak zehaztuko dira grafiko desberdinen bitartez.

3.3. EMAITZAK

3.3.1. Dibertsitate funtzionala lantzen duten ipuinen hautapena eta klasifikazioa

Hurrengo bi irizpideak jarraitu ditugu Haur eta Gazte literaturaren bilaketa propioa egiteko:

- 0-12 urte bitarteko obrak hautatzea.
- 2000. urtetik aurrera publikatuak izatea.

Denetara 25 titulu lortu dira zeinak lantzen duten elbarritasun motaren eta adinaren arabera (**1. eranskina**) sailkatu diren.

Dibertsitate funtzional motaren arabera lortutako emaitzak:

- ❖ Elbarritasun sentzorialak eta komunikazioarenak: 9
 - (Ikusmena; 5, Entzumena; 1, Mintzamina; 1 eta Komunikazioa eta lengoaiaren ulermena; 2)
- ❖ Elbarritasun fisikoak edo motrizak: 5
- ❖ Elbarritasun mentalak: 9
- ❖ Elbarritasun anizkoitzak: 2

3.3.2. Ipuinen fitxa bibliografikoa eta lortutako datuak

Puntu hau egiteko bi liburu korpusen fitxa bibliografikoan planteatutako 11 galderak (**5. eranskina**) eta lortutako 50 emaitzak kontuan hartu dira hau da, galdera bakoitzean ondorioztatutako erantzunak batu egin dira emaitza konkrituak lortzeko.

Aipatzekoa da, fitxa hau 11 galdera kualitatiboez sortua dagoela eta bai- ez erantzunen bidez osatzen dela. Horretarako, Salendek (1990), Haur eta Gazte Literaturaren ipuinak hautatzeko orduan proposatzen dituen irizpideak kontuan hartu ditugu.

Ezin dugu ahaztu zoriz hautatutako korpusean soilik hiruk (*Betaurrekoak ditut, eta zer?, Por cuatro esquinitas de nada* eta *Tengo síndrome de down*) behar-bereziak lantzen dituztela.

1) Liburuaren hizkuntza eta estiloak egokiak dira?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Lortutako emaitzei dagokionez ondorioztatu izan dugu 25 ipuinak hizkuntza zein estilo egokiak erabiltzen dituztela.
- Zoriz hautatutako korpua: Aztertutako hiru liburuetatik soilik batek ez du hizkuntza eta estilo egokiak barneratzen. *Tengo síndrome de down* ipuineko testuan hurrengoko esaldiak irakur ditzakegu: "*David hoy vamos a aprender cómo se escriben las letras mayúsculas, tú puedes dibujar mientras*" edota "*tú eres muy lento. No puedo cambiar el programa por ti.*"

2) Gertakariak era errealistan adierazten dira?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Bigarren galdera honi dagokionez esan beharra dago %76ak gertakariak era errealistan kontatzen dituela. Izan ere, geratzen den %24an errealitatetik at dauden elementuak erabiltzen dira, hala nola, *Zurginaren ipuinean*, *Nola dastatu ilargia?* edota *Elmerren* istorioetan gertatzen den moduan.
- Zoriz hautatutako korpua: Gure emaitzen arabera %100ak gertaerak modu errealistan kontatzen ditu.

3) Elbarritasuna duen pertsonaia testuinguru anitzetan agertzen da?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Kasu honetan %60an behar-berezia duen pertsonaia testuinguru anitzetan agertzen da, hala nola, *Gixela nire laguna da* eta *Nire arreba Aixa* kontakizunetan. Gainerako %40an hau da, *Amona basoan galdu zenekoa*, *Elmer berriro ere*, *Sara, nor zara?*, *Dado Iratxoa*, *Amonak alzheimer... zer?*, *Cierra los ojos*, *Un cumpleaños*, *El libro negro de los colores*, *Nola dastatu ilargia?* eta *Corre, pequeño gorrión* ipuinetan item hau ezeztatzen da.
- Zoriz hautatutako korpua: *Por cuatro esquinitas de nada* albumean pertsonaia ez da testuinguru anitzetan agertzen. Hori dela eta, hiru liburuetatik bi item honekin bat etortzen dira.

4) Pertsonaia hauek positiboak, askeak eta konpetenteak dira?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: *Amona basoan galdu zenekoa*, *Sara, nor zara?*, *Dado Iratxoa*, *Amonak alzheimer... zer?* eta *Un cumpleaños* ipuineko pertsonaiak ez dira positiboak, askeak ezta

konpetenteak ere. Adibidez, *Dado Iratxo*a kasuan pertsonaiak denbora guztia ohean ematen du. Bestalde, *Amona basoan galdu zenekoa* eta *Amonak alzhei... zer?* ipuinetan bi pertsonaiek alzheimerra sufritzen dutenez ezin dituzte zereginak haien kabuz bete. Gainerako %80an pertsonaiak positiboak, askeak eta konpetenteak dira. Izan ere, *Zurgingaren ipuina* eta *Corre, pequeño gorrión* kasuetan beharrezkoa da aspektu bat nabarmentzea: Lehenengo istorioan Baroiak nahi duena egiten du baina bere plan bakoitzaren amaieran zurgingaren laguntza behar du. Bigarrenean aldiz, txolarreak hasieran saguaren laguntza behar du.

- Zoriz hautatutako korpua: Hiruretan egoera berdina ematen da: *Betaurrekoak ditut, eta zer?* istorioan hasieran neskatoa ez dago konforme betaurrekoak eramatearekin, baina denbora aurrera joan ahala bere izaera onartzen du. Gainerako bietan, pertsonaiak adjektibo hauek lortzen dituzte testuingurua haien ezaugarrietara moldatzen denean.

5) Adierazten dituzten sentimenduak/emozioak elbarritasunari lotuak daude?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: %80ak adierazten dituen sentimenduak edota emozioak jasandako elbarritasunari lotuak daude. Aldiz, geratzen den %20ak ez du horrela erakusten. Adibidez, *Inés crece despacio*, *Nire arreba Aixa* eta *Nola dastatu ilargia?* albumetan mugak bakoitzak bere buruari jartzen dizkiola ikusi ahal dugu.
- Zoriz hautatutako korpua: Lortutako emaitzei erreparatuz, galdera hau %100-ean betetzen da.

6) Jarrera kritikoa/enpatia garatzen da?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Kasu honetan %52ak ez du item hau betetzen; talde honen artean *Martin*, *El libro negro de los colores*, *Downtown* ta *Dan & Diesel* izenburuak aurkitzen dira. Gainerako, %48ak jarrera kritikoa zein enpatia bultzatzen du.
- Zoriz hautatutako korpua: Hiru ipuinetatik soilik batek, *Por cuatro esquinitas de nada* hain zuzen ere, jarrera kritikoa zein enpatia garatzen du.

7) Jarrera ereduak eta berdintasunezkoak bultzatzen dira?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: %64ak jarrera ereduak eta berdintasunezkoak sustatzen ditu. Aldiz, geratzen den %36ak ez du horrela irudikatzen honen adibidea *Un cumpleaños* albuma da.
- Zoriz hautatutako korpua: Arestian aipatu izan den moduan *Tengo síndrome de down* ipuinean berdintasunezko jarrerak ez dira bultzatzen. Hori dela eta, hiru liburuetatik bik item hau betetzen dute.

8) Nor da beharra duena?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Beharra duten pertsonaien ehunekoak hauek dira: %84an protagonista nagusia; jarraitzeko, %12ko kasuetan beste pertsonaia eta amaitzeko, %8an animaliak dira. Aipatzekoa da *Korri, Sebastian, korri!* istorioan bi pertsonaiek elbarritasun bat sufritzen dutela hau da, Sebastian (protagonista nagusia) eta Tatianak (beste pertsonaia).
- Zoriz hautatutako korpua: Lortutako datuen arabera hiru ipuineko protagonista nagusiak beharra dutenak direla konprobatu izan dugu. Aipatzekoa da, *Por cuatro esquinitas de nada* ipuinaren protagonista objektu bat dela

9) Zer generoa du protagonistak?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Lortutako emaitzak hauek izan dira: %36ak genero femeninoa du: %56ak genero maskulinoa du eta %12ak ez du generorik.
- Zoriz hautatutako korpua: Kasu bakoitzean protagonistek genero desberdin bat dute: *Tengo síndrome de Down* kasuan generoa maskulinoa da eta *Nik betaurrekoak ditut, eta zer?* ipuinean generoa femeninoa da. Izan ere, *Por cuatro esquinitas de nada* albumean protagonistak ez du generorik.

10) Zer adina du protagonistak?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Lortutako portzentajeak hauek dira: %64ak umeak irudikatzen du, %20an gizonak zein emakumeak ageri dira eta %16an adin espezifikoko gabekoak.
- Zoriz hautatutako korpua: Galdera honetan jaioberriak, gazteak eta adin gabekoak nabarmentzen dira.

11) Noren ikuspuntutik kontatzen da?

- Behar-bereziak barneratzen dituen korpua: Ondorioztatutako datuen arabera jakin izan dugu %40an protagonista nagusiak kontatzen duela. Aldiz, %60ak beste pertsonaiak dira. Aipatzekoa da *Amona basoan galdu zenekoa* istorioan bi narratzaile ditugula: amona Eleni eta Maddi, bere biloba, zeinak trama nagusia kontatzen duen.
- Zoriz hautatutako korpua: Hiru ipuinetatik soilik batek, hau da, *Nik betaurrekoak ditut, eta zer?* ipuinak, protagonistaren ikuspuntutik narratuta dago. Gainontzeko bi kasuetan beste pertsonaia batek kontatzen du.

Gauzak horrela, hipotesien baieztapenera edota ezeztapenera ekingo diogu. Hori gauzatzeko, aipatutako fitxa bibliografikoan lortutako emaitzei erreparatuko diegu.

BEHAR- BEREZIEN LIBURUEN KORPUSAREN HIPOTESIAK

➤ 1. HIPOTESIA:


Gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan dibertsitate funtzionala duten pertsonen gertakariak modu errealistan kontatzen dira eta pertsonaiak indibiduo kompetenteak eta positiboak dira.

❖ **Pertsonen gertakariak modu errealistan kontatzen dira:**

25 ipuinetatik 20tan gertakariak modu errealistan kontatzen dira; aldiz, geratzen diren beste 5ek fantasia erabiltzen dutela esan genezake.

Pertsonaien gertakariak modu errealistan kontatzen dira

■ BAI ■ EZ




Fantasiaren adibidea *Zurginaren ipuina* izan ahal da. Ipuin honetan, Von Bobus baroi gerrazaleak Firmin zurgin finaren laguntza behar du gudatik bueltatzen duen bakoitzean gorputz-adarren bat galtzen duelako. Firminek baroiari besoak, zangoak, eta burua fabrikatu zizkion. Ondorioz, esan genezake fantasia erabiltzen den kasuetan elbarritasuna umorez tratatzea nahi dela.

Aitzitik, Meri Torras-ek *Nire arreba Aixa* obran gaur egungo egoera bat abiapuntu bezala erabiltzen du neska baten istorioa kontatzeko. Honetan, Aixa neskato afrikarra da zeinak Bartzelonan bizi den bere adopzio familiarekin. Aixari hanka bat falta zaio pertsonen kontrako mina baten biktima izan zen eta; hala ere, horrek ez du eragozten neskato honek futbol jokalaria zein punteria bikaina izatea.

❖ **Pertsonaiak indibiduo kompetenteak eta positiboak dira.**

25 ipuinetatik 19tan pertsonaiak indibiduo kompetenteak dira; aldiz, geratzen diren beste 6ek beste pertsonen laguntza behar dute edota hobetze prozesu bat ematen dela esan ahal genezake.

Pertsonaiak indibiduo kompetenteak eta positiboak dira



Pertsonen laguntzari dagokionez, *Amonak basoan galdu zenekoa* eta *Amonak alzhei... zer?* ipuinetan gaixotasun berdina tratatzen da hau

da, alzheimerra. Bietan nabarmendu dezakegu protagonistek hasiera batean kompetenteak zein positiboak zirela, baina gaixotasuna aurrera joan ahala haien gaitasun guztiak desagertzen joan dira.

Amonak basoan galdu zenekoa istorioan amona Elenik *Txanogorritxo*-ren ipuina bere "arazoa" kontatzeko erabiltzen du: "zer gertatu zitzaion *Txanogorritxuri*? Gertatu zitzaion egun batean abiatu zela basoan barrena eta galdu egin zela. Erabat galdu. Ingurura begiratu eta non zegoen ez jakiteraino."

Aldiz, *Amonak alzhei...* zer? ipuinean amonaren jarrerek eta jokabideek gaixotasuna deskribatzen dute: "*Amonak esan zidan: <<Egun on, Rosa!>>[...]* Amona, okertu egin zara, ni Katixa naiz! [...]*Zapatak hozkailuan sartzen zituen, okerreko bidea hartzen zuen eta ez zuen bere ohea aurkitzen.*"

Gainera, aipatzekoa da obra hauen amaiera berdina dela hau da, bi amonek zahar-etxe batera bizitzera joaten dira.

Jarraitzeko, *Korri, Sebastian, Korri!* eta *Corre, pequeño gorrión* ipuinak izenburu ia berdina izateaz gain, tramak parekideak dira. Bi obra hauetan protagonistek hobetze prozesu bat bizitzen dute hau da, hasieran ez dira kompetenteak ezta positiboak ere.

Izan ere, kontakizunaren momentu batean beste protagonista bat agertzen da laguntza eskaintzen. *Korri, Sebastian, Korri!* kasuan, Tatianak, elbarritasun fisikoa duen neskatxoa, izango da Sebastianen egoera guztiz aldatzen duena. Bestalde, *Corre, pequeño gorrión* obran Sagua eta Erroia izango dira txolarrearen laguntzaileak.

Bukatzeko, badaude hainbat ipuin non elbarritasuna duten pertsonaiak guztiz trebeak diren hala nola, *Nire laguna Gixela da, El caso de Lorenzo* edota *Palabras de caramelo*.

Nire laguna Gixela da obran neskatoak itsua izan arren egunerokotasunean normaltasunez jardun ahal du; sokasaltoan dabil, usaimen zein entzumen bikaina du, pianoa jotzen du, etab.


➤ 2. HIPOTESIA:

Orokorrean, istorioak testuinguru familiarrean garatzen dira eta senide batek kontaktzen ditu.

25 ipuinetatik, 11an istorioa senide batek kontatzen du, normalean, anaia-arreba edo biloba izaten da, hala nola, *Un cumpleaños*, *Dan y Diesel*, *Cierra los ojos* eta *Arroza eta tinta*. Beste 11 ipuinetan protagonista berak narratzen du: *Elmer*; *Nik erremerre egiten dut, eta zer?* eta *Dado iratxoa*, besteak beste. Jarraitzeko, soilik bi ipuinetan lagun batek egoeraren berri ematen du, *Nire laguna Gixela da* eta *Martin*. Geratzen den bakarrean hau da, *Korri*, *Sebastian*, *korri!* irakaslea da kontatzen duena.

Orokorrean, istorioak testuinguru familiarrean garatzen dira eta senide batek kontatzen ditu

■ SENIDEAK ■ PROTAGONISTAK ■ LAGUNAK ■ IRAKASLEA



➤ 3. HIPOTESIA:

Elbarritasun mentala gehiago islatuko da.

2000ean INGEIk (Instituto Nacional de Estadística, Geografía e Informática) dibertsitate funtzionalaren klasifikazioa publikatu zuen:

- 1. taldea Elbarritasun sentorialak eta komunikazioarenak:** urritasun eta desgaitasun okularrak, entzumenezkoak eta hizkerarenak.
- 2. taldea Elbarritasun motorrak:** ibiltzeko, objektuak manipulatzeko eta mugimenduak koordinatzeko zailtasunak dituzten pertsonak.
- 3. taldea Elbarritasun mentalak:** ikasteko eta eguneroko jardueretan zein besteekin jarrera egokiak izateko zailtasunak dituzten pertsonak.
- 4. taldea Elbarritasun anitzak:** aurreko taldeetan aipatutako konbinazioak eta beste motatakoak ematen direnean.


Gauzak horrela, hauek izan dira dibertsitate funtzional motaren arabera lortutako datuak:

- ❖ Elbarritasun sentsorialak eta komunikazioarenak: 9
 - (Ikusmena; 5, Entzumena; 1, Mintzamina; 1 eta Komunikazioa eta lengoaiaren ulermena; 2)
- ❖ Elbarritasun fisikoak edo motrizak: 5
- ❖ Elbarritasun mentalak: 9
- ❖ Elbarritasun anizkoitzak: 2

Sailkapen honen bidez egiaztatu ahal izan dugu aurkitutako irakurgai kantitaterik handienak elbarritasun sentsorialak eta komunikazioarenak zein mentalak tratatzen dituela. Bi hauek 25 liburuen %72a hartzen dute. Gainera, elbarritasun sentsorialaren eta komunikazioaren barruan ikusmenarekin zerikusia duten egoerak nabarmentzen dira %20an. Jarraitzeko, %20an elbarritasun fisikoak edo motrizak agertzen dira. Bukatzeko, ondorioztatu izan dugu soilik bi ipuinek elbarritasun anizkoitzak tratatzen dutela hau da, %8a.

Elbarritasun konkretu bat gehiago islatzea espero da.

- Elbarritasun sentsorialak eta komunikazioarenak
- Elbarritasun fisikoak edo motrizak
- Elbarritasun mentalak
- Elbarritasun anizkoitzak:



ZORIZ EGINDAKO LIBURUEN KORPUSAREN HIPOTESIA

Hipotesi hau baieztatzeko edo ezeztatzeko aurreko korpusean erabilitako galdera zein prozesu berdinak erabili dira. Horiek horrela, aztertutako ipuinen tituluak **2. eranskinean** kontsultatu ahal dira.


➤ 4. HIPOTESIA:

Orokorrean, haur liburuetan ia-ia ez dira behar bereziak inoiz islatzen.

Jasotako datuen arabera, 25 tituluetatik soilik 3 hau da, % 4a behar berezien inguruan idatziak daude. Gauzak horrela, hipotesi hau baieztatzeko informazio nahikoa dugu.

Orokorrean, haur liburuetan ia-ia ez dira behar bereziak inoiz islatzen

■ BEHAR BEREZIAK ■ BESTEAK



Behar bereziak barneratzen dituzten obrak hauek izan dira: *Betaurrekoak ditut, eta zer?*, *Por cuatro esquinitas de nada* eta *Tengo síndrome de Down*.

Lehenengo ipuinean Mirenek, protagonista, kontatzen du nola jaio zenetik ikusmen urria izan duen, hori dela eta, betaurrekoak eraman behar ditu. *Betaurrekoak ditut, eta zer?* obra elbarritasun sensorialen eta komunikazioaren taldean klasifikatzen da, ikusmenaren atalean hain zuzen ere.

Jarraitzeko, *Por cuatro esquinitas de nada* ipuinak elbarritasun anizkoitzak tratatzen ditu. Obra honetan era oso sinplean eta argian ikusten da nola ez den pertsonak testuingurura moldatu behar dena, baizik eta testuingurua indibiduo bakoitzaren bizitza erraztu behar duena da.

Azkenik, *Tengo síndrome de Down* obrak elbarritasun mentala duen jaioberri baten istorioa kontatzen da. Ipuin honetan Daviden gaitasunak goraiatzeko dira eta berdintasunezko harremanak bultzatzeko dira: "*le encantaba pintar y cantar igual que al resto de niños*", "*se podía vestir solo, se preparaba el desayuno, se ataba los cordones*", "*David aprendió a escribir en mayúsculas, a contar y a leer*", etab.

3.3. ONDORIOAK

Ikerketan zehar azaldu den moduan, hasieratik 50 irakurketa aukeratu genituen analizatzeko eta datuak kontrastatzeko. Hau posible egiteko bi liburu korpus egin genituen zeinak bakoitzak 25 titulu hartzen zituen. Zerrendak sortzeko bi irizpideen menpe jokatu genuen: alde batetik, irakurketak 0-12 urte bitartekoak izan behar ziren, eta bestetik, 2000. urtetik aurrera publikatuak.

Halaber, lan honen helburu nagusia dibertsitate funtzionalak zer tratamendua duen Haur eta Gazte Literaturan ezagutzea eta ulertzea da. Oinarrizko xedeaz gain, ikerlan honetan beste bi helburu espezifiko planteatu dira: alde batetik, dibertsitate funtzionala tratatzen duten ipuinak bilatzea eta bestetik, katalogatu diren obren aukeraketa egitea, ondoren behar berezien gaiaren inguruan zer nolako tratamendua egiten duten aztertzeko eta baloratzeko. Hori dela eta, uste dugu planteatutako objektibo nagusia zein gainerako biak lortu direla.

Gauzak horrela, lehenengo hipotesiari dagokionez, esan genezake %80an gertakariak modu errealistan kontatzen direla hau da, soilik %20an fantasiaren errekurtsoa erabiltzen da. Jarrartzeko, 19 ipuinetan (%72an) pertsonaiak indibiduo kompetenteak eta positiboak dira.

Bigarren hipotesian lortutako datuak aintzat hartuz, %88an istorioa senide batek edo protagonista berak kontatzen dute. Halaber, %8an lagun batek egoeraren berri ematen du eta gainerako %4an irakaslea da narratzen duena. Hori dela eta, bi item-en berdinketa egon denez ezin da hipotesi hau baieztatu.

Aztertutako 25 liburuetatik %18tan elbarritasun sentzorialak eta komunikazioarenak zein mentalak tratatzen dira; gauzak horrela, ez da elbarritasun konkretu bat portzentaje handiagoan islatzen hau da, bi dibertsitate funtzional desberdin nabarmentzen dira. Hortaz, hipotesi hau deuseztatuta geratzen da.

Gradu Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.

Azkenik, lortutako datuen arabera baieztatu ahal dugu zoriz hautatutako ipuinetan behar-bereziak ez direla islatzen.

Gainera, azpimarratu behar da egile desberdinen ipuinak hautatzea kontuan hartu den ezaugarria dela, idazle bakoitzak erabilitako estrategiak konparatu ahal izateko; aukeratutakoak autore bakarrenak balira ez litzateke bereizgarria izango, bakoitzak behar bereziak bere modu propioan jorratzeko joera izango baitu, zentzu espezifiko bat emanaz, adibidez.

Horrez gain, behar bereziak barneratzen dituen korpusean badira hainbat obra sarituak izan direnak (*Martin*, Lazarillo Saria 2015 edota *El libro negro de los colores*, Bolongnaragazzi saria 2007) zein bere produkzioan kolaboratu duten elkarteen laguntza islatzen dutenak hala nola, FEAPS (Confederación Española de Organizaciones en favor de las personas con Discapacidad Intelectual).

